



EDIKTUA

ENEKA MAIZ ULAIAR, ETXARRI ARANAZKO ALKATEA NAIZENEZ,

JAKINARAZTEN DUT:

Udal honek ondoko zergen erreziboak kobratzera pasatuko dituela:

* 2015/2. SEIHILABETEKO URA

Ordaintzeko borondatezko epea aurtengo APIRILAREN 29AN bukatuko da. Aipatu epe hori pasata, ordainagiriak Agentzi Exekutibora bidaliko direla, kobratzea premiamendu-bidetik burutzeko, Tributuen Foru Lege Orokorraren 117. artikuluan ezartzen diren errekarguekin.

Ordainketak helbideratuak dituztenei bere borondatezko epearen azkeneko egunean, kontuetan kargatuko zaie, eta gainerakoek Etxarri Aranazko banketxe batean ordaindu beharko dute.

Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna apirilaren 22a izango da.

Etxarri Aranatz, 2016ko martxoaren 15a.



ALKATEA
Eneka Maiz Ulaiar